



EBAZPENA IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN 2024 URTEAN EGINGO DIREN PROBA LIBREEN DEIALDIA ETA PROBA HORIEK NOLA EGINGO DIREN ARAUTZEKOA.

1041/2017 Errege Dekretuak, abenduaren 22koak, Egiaptapenaren ondoretarako oinarrizko mailaren gutxieneko eskakizunak finkatzen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza ikasketen B1 tartekoa, B2 tartekoa, C1 aurreratua eta C2 aurreratua mailen oinarrizko curriculuma eta zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak ezartzen ditu.

80/2019 Dekretuak, maiatzaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen du, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.

Urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuaren bidez, ebaluaziorako oinarrizko printzipio komunak ezartzen dira, araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzako tarteko B1, tarteko B2, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren ziurtagiri ofizialetako probetan aplikatu beharrekoak.

Beste aldetik, 2013ko uztailaren 3ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenak, arautzen du nola onartu eta matrikulatu behar diren erregimen ofizialeko edo libreko ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ematen diren hizkuntza-irakaskuntzetan.

Agindu horren 3. artikulua ezartzen duenez, urtero-urtero deialdi bat egingo da ikasle libreak onartu eta matrikulatzeko prozesua aurrera eramateko, eta horretarako, Ikastetxeen zuzendariak ebazpena eman, gaur egun Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak, eta Hezkuntza Saileko web orrian argitaratuko da. Artikulu horretan jaso denez, Ebazpen honetan arautuko dira eskaerak aurkezteko era eta lekua, eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta prozeduraren fase bakoitzeko epeak.

Hori dela eta, aurrean aipatutako Dekretu eta Aginduan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra. - Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan 2024. urtean egingo diren proba libreetan matrikulatzeko eta proba horiek egiteko baldintzak eta eskakizunak onartzea Ebazpen honen I. eranskinean, eta proba horien egutegia finkatzea II. Eranskinean.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa.- Ondorioak.

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzen denean. Bertan mantenduko da, eranskinekin batera, deitutako prozedura amaitu arte eta hura betetzeko errekurtsio-epeak igaro arte.



**Azken xedapenetako bigarrena.- Errekurtsoak.**

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari hilabeteko epean, Hezkuntza Saileko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz

Eugenio Jimenez Ibañez
Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria



I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN 2024. URTEAN EGINGO DIREN PROBA LIBREETAN MATRIKULATZEKO ETA PROBA HORIEK EGITEKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

1.- Deialdia.

1.1.- 2024. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialek erregimen librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte, maila hauetan:

- Oinarrizko Maila A2
- Tarteko Maila B1
- Tarteko Maila B2
- Maila Aurreratua C1

2024ko urtarrilaren azken astean argitaratuko da Hezkuntza Sailaren webgunean eskola, hizkuntza eta maila bakoitzeko matrikula libreko plazen zerrenda.

1.2.- 2023-2024 ikasturtean, ikasle libreek deialdi bakarra izango dute dagokion maila gainditzeko. Maiatza eta ekaina bitartean egingo dira probak, II. Eranskinean zehazten den bezala.

2.- Probak egiteko betekizunak.

2.1.- Adina. Probetarako matrikula egin dezakete 2024. urtean 16 urte dituztenek edo urte horretan adin hori betetzen dutenek.

2.2.- 2023-2024 ikasturtean hizkuntza baten edozein mailatan erregimen ofizialean matrikulatutakoek ezin dute matrikularik egin erregimen librean hizkuntza bereko ezein mailatan¹.

2.3.- Eskatzaileek ezin izango dute gaindituta duten maila batean edo baxuagoan matrikula egin. Horretarako, kontuan hartuko dira baita ere aurreko ikasketa-planetan gainditutako mailak, matrikula egiteko unean daudenen baliokideak direnak legez¹.

2.4.- Ikasleek ezin izango dute gaztelaniarako matrikula egin haien herrialdeetako hizkuntza ofiziala gaztelania bada¹.

2.5- Identifikazio-agiria. 6.a atalean ezarritako identifikazio-agiria eduki beharko da.

3.- Prozesutik kanporatzea.

Egiaztatzen bada eskatzaileak ez duela betetzen deialdiko eskakizunen bat, prozesutik kanporatua izan daiteke edozein unetan. Eskatzaileak kanporatuak izan daitezke proba egin ondoren ere.

4.- Eskaerak aurkeztea.

4.1- Eskabideak, ordainketak eta matrikularen agiriak aurkezteko **epeak ebazpen honen 5. puntuan**

¹ AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. 2. artikulua.

**ezarritakoak dira.**

4.2.- Eskatzaileak onartzea. Hizkuntza berean, pertsona bakoitza **eskola eta maila bakar batean** matrikulatu ahal izango da libre modura. Norbaitek matrikulatutako maila aldatu nahi badu, dagokion hizkuntza-eskola ofizialean eskaera bat aurkeztu behar du. Eskaera hori, onartuen eta baztertuen egoerari erreklamazioak aurkezteko emango den epe barruan egingo du. Epea bukatuta, ez da maila aldaketarik onartuko. Dagokion eskolan eskatutako mailan plaza hutsik geratu ezean, eskabidea baztertu egingo da. Norbaitek bi hizkuntza edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskaera bat egin behar du hizkuntza bakoitzeko.

4.3.- Pertsona batek bi hizkuntza edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bat egin beharko du hizkuntza bakoitzeko.

4.4.- Eskabideak formatu elektronikoan (on-line) aurkeztuko dira, Hezkuntza Sailak horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez, kasu bakoitzean dagokion dokumentazioa erantsita.

4.5.- Eskabidea aurkezteko, lehenik eta behin, Ikasgunean, <https://ikasgunea.euskadi.eus>, erregistratu beharko da, NAN, AIZ edo DIE (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) zenbakiekin. Behin erregistratuta, interesdunak, **ebazpen honetako 2. puntuan ezarritako baldintzak betetzen baditu**, eskabidea egin ahal izango du plataforma horren bidez. Eskatutako dokumentazio guztia Ikasgunearen bidez erantsi ahal izango da.

4.6.- AIZ edo NAN ez duten atzerritarrek DIE (Hezkuntzako Identifikazio Agiria), **ebazpen honetako 2. puntuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte**, eskatu beharko dute Hizkuntza Eskola Ofizialean, lehenagotik ez badute.

4.7.- Eskabidea modu telematikoan (Internet bidez) betetzeko edo prezio publikoa ordaintzeko gorabeherarik edo zailtasunik dutenek hizkuntza-eskola ofizialera jo beharko dute, lagundu diezaieten edo izapide horiek modu telematikoan egiteko baliabide materialak utz diezazkieten. Zein eskolatan matrikulatu nahi duten, eskola horretara joan beharko dute, jendearentzako arreta-ordutegian eta eskabideak aurkezteko eta prezio publikoa ordaintzeko epean.

4.8.- Sistema telematikotik eratorritako arazo edo zailtasunetan oinarritutako baztertutako pertsonen zerrenden aurka egiten den erreklamazio oro Eskolaren ziurtagiriarekin batera aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horren arabera, pertsona hori epe barruan aurkeztu zen Eskolan, aipatutako zailtasunak konpontzeko. Horrelako gorabeherak saihesteko, izapide telematiko horiek epearen azken egunera ez atzeratzea gomendatzen da.

4.9.- 2013ko uztailaren 3ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzea arautzen du. Agindu horren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabidea egiteko unean, pertsona bakoitzak erabaki ahalko du zein hizkuntza eskolatan matrikulatu nahi duen, dagokion hizkuntzan eta mailan plazak eskaintzen dituztenen artean. Eskola batean hizkuntza eta maila jakin bateko plazak agortzen badira, matrikula egiten duten hurrengokoek hizkuntza eta maila hori eskaintzen duten eskolen artean aukeratu beharko dute, plaza librerik badago.

4.10.- Eskaera datuak bete ondoren, matrikularen prezio publikoa ordaindu behar da. Prezio publiko hori xedatzen du 2013ko uztailaren 10eko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarenak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituenak (2013-07-31ko EHAA).



5.- Matrikularen eskaera egin, ordaindu eta dokumentazioa aurkezteko epea.

5.1.- Matrikula egiteko epea honako hau izango da: **2024ko otsailaren 1eko 10:00etatik, otsailaren 7ko 13:00etara.**

5.2.- Matrikula ordaintzeko epea honako hau izango da: **2024ko otsailaren 1eko 10:00etatik, otsailaren 9ko 13:00etara.**

5.3.- Dokumentazioa aurkeztea. Hurrengo ataletan aipatzen den dokumentazio guztia Ikasgunearen bidez erantsi ahal izango da, <https://ikasgunea.euskadi.eus>. Dokumentazioa aurkezteko epea **2024ko otsailaren 7ko 13:00etan amaituko da.**

6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a) Eskabidea egin nahi duen pertsonak nazionalitate espainola badu, haren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) zenbakia eta iraungitze data erabili beharko ditu, nahitaez, bere burua identifikatzeko. Pertsona atzerritarrak Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) eta Atzerritarren Identifikazio Txartelaren (AIT) zenbakiaren eta iraungitze-dataren bidez identifikatuko dira². Datuen balidazioa okerra bada, eskaerarekin jarraitu ahal izango da, baina eskatzaileak dagokion identifikazio-agiria **aurkeztu beharko du ebazpen honen 5. puntuan ezarritako epean.**

Atzerritarren Identifikazio Zenbakirik ez duten Norvegiako, Islandiako, Liechtensteineko, Suitzako eta Espainia ez den Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrak haien herrialdeak emandako beste nortasun-agiri ofizial baten bidez identifikatu ahal izango dira². Horrelakoetan, identifikazio-datuak benetakoak direla egiaztatzeko, eskatzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko du Ikasgunearen bidez edo plaza eskatu duen Hizkuntza Eskolan **5. puntuan ezarritako epean.**

Eskatzaileak ez badu eskatutako dokumentua epean aurkezten, prozesutik kanpo geratuko da.

b) Familia Ugaria direnek, Euskal Autonomia Erkidegokoak salbu, **beste Autonomia Erkidego batek luzatutako titulu ofiziala aurkeztuko dute.** Dokumentu hori eskatutako hizkuntza-eskola ofizialean aurkeztu behar izango da Ebazpen honetan zehazten den epean. Dagokion **dokumentua aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da, eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskubiderik ez du izango.**

Euskal Autonomia Erkidegoak emandako Familia Ugarien tituluaren kasuan, ofizioz egiaztatuko dira Administrazioak duen informazioarekin erkatuta, betiere egiaztapen hori posible bada eta interesdunak baimena eman badu. Interesdunak ez badu baimenik eman edo **ezin badira datuak ofizioz egiaztatu, eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du plaza eskatu duen hizkuntza-eskolan edo Ikasgunearen bidez.** Egiaztagiri hori **aurkezteko epea otsailaren 7an amaituko da, 13: 00etan.**

c) Azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikulua araberako terrorismoaren biktime diren eskatzaileek dagokien Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak edo antzeko erakundeak egindako egiaztagiria aurkeztu behar dute. Egiaztagiri hori **aurkezteko epea otsailaren 7an amaituko da, 13: 00etan. Dokumentu hori aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da.**

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak eta azterketarako laguntza eskaria egin badute eskabide orrian, gaurkotutako mediku-agiria edo desgaitasun-agiria aurkeztu beharko dute. Horrelakorik adierazi ezean, ez zaie curriculumean sartzeko edo ebaluazio-probak egiteko behar duten laguntzarik

² AGINDUA, 2013ko uztailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzeari buruzkoa. 5.6. artikulua.



bermatuko.

Goian aipatutako dokumentazio hori Ikasgunearen bitartez aurkeztu ezik, paperean aurkeztu beharko du eskatzaileak matrikulatu nahi duen eskolan. Dokumentazioa hizkuntza-eskoletako bulegoetan aurkeztu beharko da, hain zuzen ere helbide hauetan:

- Vitoria-Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Lasarte errepidea, 21A; Vitoria-Gasteiz.
- Donostia-San Sebastiango Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bizkaia pasealekua, 22; Donostia.
- Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Otaola Hiribidea 29, Eibar.
- Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala: Alcaldía de Sacas, 13; Irun.
- Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Paper kalea, 1-3; Tolosa
- Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Barrena parkea, z/g; Ordizia.
- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala: San Pedro plaza, 5; Bilbo.
- Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Eskoletako enparantza, z/g; Getxo.
- Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiaurrea, 1; Durango.
- Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Juan de Garay kalea, z/g; Barakaldo.
- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiaur tar Kepa, 72; Bermeo.
- Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bentako plaza, 1; Basauri.
- Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala: La Inmaculada, 15 bis; Zalla.
- Santurtziko Hizkuntza Eskola Ofiziala: José Miguel de Barandiaran, 12; Santurtzi.

Zuzenean zerbitzuko bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, helbide hauetan:

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 behe, Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaia: Kale Nagusia, 85; Bilbo.
- Gipuzkoa: Andia 13; Donostia.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkez daitezke eskabideak, lege horretan ezarritako baldintzatan. Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada eskabidea, gutun-azal irekian aurkeztu beharko da, eta zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jarri beharko dizkio, gutun-azala egiaztatu aurretik. Horrela egin ezean, helburuko bulego publikoan duen sarrera-eguna joko da sarrera-eguntzat.

Dokumentazioa aurkezteko, jatorrizko dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Fotokopia eta jatorrizko dokumentua bat datozela egiaztatu beharko du baimendutako notario batek; bestela, fotokopia konpultsatu beharko du hizkuntza-eskola ofizialeko bulegoak edo erregistro nagusiak edo



laguntzaileak, betiere apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuko 17. artikulua araberako (72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; 2008-05-30eko EHAA).

7.- Ordainketa egiteko modua.

7.1.- Onartutako pertsonak dagokion prezio publikoa (36,18€) ordainduta formalizatuko da matrikula. Zenbateko hori Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduan ezarritakoa da, sail horrek ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Aginduan.

7.2.- Ordainketa modu telematikoan egin beharko da, Ikasgunearen bidez, **2024ko otsailaren 1eko 10:00etatik, otsailaren 9ko 13:00ak arte**. Internet bidez izapidetzeko gorabeheraren bat edo zailtasunen bat duten pertsonak matrikulatu nahi diren hizkuntza-eskolarak joan ahal izango dira jendaurreko ordutegiaren barruan, laguntza pertsonala edo materiala eman dakien, modu telematikoan egin ahal izateko.

7.3.- Ordainketa Visa edo Maestro edo Mastercard edozein txartelekin egin ahal izango da, edo honako erakunde hauetako banka elektronikoko zerbitzuen bidez: Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa), Laboral Kutxa, SabadellGuipuzcoano, CaixaBank, Bankoa, BBVA, Bankia, Banco Popular eta Caja Rural de Navarra.

Aurrez aurre ere egin ahal izango da, honako erakunde hauen sukurtsaletan: Kutxabank (BBK, Vital Kutxa), Laboral Kutxa, SabadellGuipuzcoano, CaixaBank, Bankoa, BBVA, Bankia, Banco Popular eta Caja Rural de Navarra. Horretarako, matrikula egitean lortu duten ordainagiria edo ordainagiria aurkeztu beharko dute.

7.4.- Ordainketa egin duenaren akats baten ondorioz pertsona batek behar ez den ordainketaren bat egin badu, pertsona horrek ez du izango eskubiderik diru hori bueltan jasotzeko.

8.- Matrikulazio-prozesuko datuak kudeatu eta babesteko modua.

8.1.- Organo kudeatzaileek eskabideetan eskuratutako datu pertsonalak honako prozedura hau antolatzeko erabiliko dituzte: 2023-2024 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako plazak esleitzeko eta matrikulak egiteko prozedura, zeinaren arduradun baitira organo kudeatzaile horiek. Hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.

8.2.- Gainera, esleipen-prozesuan parte-hartzaileei buruz sortzen den informazioa Ikasgunean kontsultatu ahal izango da, ezingo dira zerrendak argitaratu iragarki-oholetan.

8.3.- Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

9.- Onartuak / Ez onartuak.

9.1.- Ezarritako egutegiaren arabera, **2024ko otsailaren 14an** interesdunek Ikasgunean, <https://ikasgunea.euskadi.eus> kontsultatu ahal izango dute **behin-behinean onartuak edo baztertuak** izan diren, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko da. Sartu ezin izanez gero, eskabidea egin duen ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dute.

9.2.- Behin-behineko egoeraren aurkako erreklamazioak **otsailaren 14tik otsailaren 19ko 13:00ak arte**



aurkeztu ahal izango dira, Ikasgunearen bitartez. Erreklamazioak aurkezteko inprimakia eskuragarri egongo da baita ere Sailaren webgunean eta Hizkuntza Eskola Ofizialean bertan, erreklamazioa eskaera egin den ikastetxeko idazkaritzan aurkezten bada.

9.3.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igarota, **2024ko otsailaren 26an** interesatuek Ikasgunearen bidez egin ahal izango dute kontsulta ikusteko **behin betiko egoera**.

9.4.- Behin betiko egoeraren aurkako errekurtsioak hilabeteko epean aurkeztuko zaizkio Eskola kokatuta dagoen lurraldeko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari.

10.- Ziurtapen probak. Ezaugarri orokorrak.

10.1.- Oinarrizko mailako, tarteko mailako eta maila aurreratuko ziurtagiriak lortzeko, proba bat gainditu beharko da, ebaluatzen diren hizkuntza-jardueretan ikasleek eskatutako ezagutza-maila lortu dutela zehazteko.

10.2.- Probak komunak izango dira Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan, bai erregimen ofizialean matrikulatutako ikasleentzat, bai erregimen librean matrikulatutakoentzat, eta hizkuntza guztietan, hautagaien objektibotasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

10.3.- Oinarrizko mailan, ziurtapen-probak lau zati izango ditu. Horietako bakoitzak hizkuntza-jarduera bat ebaluatuko du:

- a) Entzunaren ulermena
- b) Irakurriaren ulermena
- c) Ahozko testuen ekoizpena eta elkarreragina
- d) Idatzizko testuen ekoizpena eta elkarreragina

10.4.- Tarteko mailan eta maila aurreratuan, ziurtapen-probak bost zati izango ditu. Horietako bakoitzak hizkuntza-jarduera bat ebaluatuko du:

- a) Entzunaren ulermena
- b) Irakurriaren ulermena
- c) Ahozko testuen ekoizpena eta elkarreragina
- d) Idatzizko testuen ekoizpena eta elkarreragina
- e) Bitartekotza

10.5.- Ziurtapen-probetan, zatiek balio bera izango dute: proba bakoitzeko puntuazio osoaren laurdena, oinarrizko mailaren kasuan, eta proba bakoitzeko puntuazio osoaren bostena, tarteko mailan eta maila aurreratuan.

10.6.- Hautagaiek probak osatzen dituzten zati guztiak egin ahal izango dituzte, eta horietako edozein gainditzea ez da ezinbesteko baldintza izango gainerakoak egiteko.

10.7.- Proba osorik gainditzeko eta GAI kalifikazioa lortzeko, probaren zati bakoitza gainditu beharko da, gutxienez ehuneko berrogeita hamarreko puntuazioarekin, eta zati guztien puntuazioen batuketan eginda lortzen den puntuazioaren ehuneko hirurogeita bost lortu beharko da gutxienez.

10.8.- Ziurtapen-proba osatzen duten zatietako bat edo batzuk egiten ez dituzten hautagaien kasuan, proba horietan emandako kalifikazioa honela adieraziko da: "Ez aurkeztua". Kasu horietan, ziurtapen-



probaren amaierako kalifikazio globala "Ez gai" izango da. Hautagaiek ez badute ziurtagiri-probaren zatirik egiten, "Ez aurkeztua" kalifikazio globala emango zaie.

10.9.- Probaren emaitzak zati bakoitzaren puntuazioa eta probaren kalifikazio orokorra agertuko ditu.

10.10.- Zati bakoitzaren kalifikazioak positibotzat joko dira puntuazioa dagokion puntuazioaren % 50era iristen denean, eta gainerakoak negatibotzat.

10.11.- Dagokion mailaren ziurtagiria lortzen ez duten pertsona guztiek dagokion urteko deialdian ebaluazio positiboa lortu duten trebetasunak gainditu izanaren egiaztagiri akademikoa emateko eskatu ahal izango dute. Ziurtagiri horrek ez du ondorio akademikorik izango.

11.- Frogak berrikusteko eta kalifikazioak erreklamatzeko eskubidea³

11.1.– Ikastetxeek amaierako kalifikazioei begira argibideak eskatzeko eta erreklamazioak aurkezteko prozedurari buruzko beharrezko informazioa eman eta zabalduko dute, indarreko araudiarekin bat. Ziurtapen-proben kalifikazioaren aurkako erreklamazioetan aintzat hartuko da urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoa.

11.2.– Lortutako kalifikazioa jakinarazi edo jakinarazteko argitaratu ondoren, interesdunak 3 egun balioduneko epea izango du, jakinarazi eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, berrikusteko eskaera aurkezteko; horren bidez lortutako kalifikazioari buruzko argibideak eskatu ahaliko ditu.

11.3.– Eskaera Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduak adierazten duen moduan aurkeztuko da, eta berrikuspena, lehenik eta behin, ebaluazioa eta kalifikazioa egin dituzten pertsonak egingo dute, edo, bestela, haien legezko ordezkariak.

11.4.– Berrikuspena ezingo da mugatu kalifikazio kuantitatibo edo kualitatibo bat ematera, eta egindako akatsak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adierazi beharko ditu, eta, amaitzeko, kalifikazioa mantendu edo aldatzeko erabaki arrazoitu bat hartuko da. Hori eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta ikastetxearen zuzendaritzaren aurrean bigarren berrikuspena egiteko epea eta aukera adieraziko zaizkio, 3 egun balioduneko epean lehen berrikuspenaren emaitza jakiten duenetik.

11.5.– Bigarren berrikuspenerako eskaera idatziz aurkeztu behar zaio zuzendaritzari, Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduak adierazten duen moduan, eta dagokion hizkuntzaren sail didaktikoari bidaliko zaio, erabaki bat har dezan eta txosten arrazoitua eta ebazpen-proposamena bidal diezazkion zuzendaritzari. Txostenak adieraziko du ea ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoarekin bat egin diren, kalifikazioen kalkuluan akatsik egin gabe eta ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatuz.

11.6.– Bigarren berrikuspena zuzendariak ebatziko du, era arrazoituan, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan jakinaraziko zaio erreklamatzaileari.

11.7.– Ikastetxeko zuzendaritzak eginiko berrikuspenaren ebazpenaren aurkako erreklamazio bat aurkeztu ahal izango zaio dagokion lurralde-ordezkaritzako titularrari.

³ AGINDUA, 2023ko uztailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, Hizkuntza-eskola ofizialetako maila eta kurtsoetara atxikitzeari, ebaluatzeari, maila ziurtatzeko probei eta beste ziurtagiri eta ikastaro batzuei buruzkoa. 27. artikulua.



II. ERANSKINA

2024. URTEKO DEIALDI LIBREKO AZTERKETEN EGUTEGIA: DEIALDI BAKARRA

HIZKUNTZA	MAILA	DATA	*ORDUTEGIA
ALEMANA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/27	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/27	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/27	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/27	
ATZERRITARRENTZAKO ESPAINIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/28	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/29	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/28	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/29	
EUSKARA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/22	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/22	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/20	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/22	
FRANTSESA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/24	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/24	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/24	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/24	
INGELESA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/23	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/23	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/17	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/21	
ITALIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/31	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/31	
	TARTEKO M. (B2)	2024/05/30	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/05/30	

*Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialean kontsultatu ordutegiak eta ahozko azterketen datak.



HIZKUNTZA	MAILA	DATA	*ORDUTEGIA
PORTUGESA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/06/04	
	TARTEKO M. (B1)	2024/06/04	
	TARTEKO M. (B2)	2024/06/03	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/06/03	
ERRUSIERA	OINARRIZKO M. (A2)	2024/05/28	
	TARTEKO M. (B1)	2024/05/29	
	TARTEKO M. (B2)	2024/06/05	
	M. AURRERATUA(C1)	2024/06/06	

***Dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialean kontsultatu ordutegiak eta ahozko azterketen datak.**